# Jabetze Eskola Tolosa
# Urria-Abendua egitaraua 2017

## Escuela de Empoderamiento de Tolosa.
## Programa Octubre-Diciembre 2017




TOLOSA
berdinzalea

TOLOSALDEA
GARATZEN

## Zer da Jabetzea?

Jabetze terminoa esaten dugunean, banakako eta taldekako ikaskuntza eta kontzientziatze-prozesu bat adierazi nahi dugu, hain zuzen ere, mundu osoko gizarteetan sexismoak guri, emakumeoi, ezartzen digun diskriminazio eta gutxiagotasun-egoera salatzea, eta horren kontra borroka egitea ahalbidetzen digun prozesua.

## Zer da Jabetze Eskola?

Espazio hau emakumeon jabetzea eta parte hartze soziopolitikoa sendotzeko dago pentsatuta, gizarte justu, anitz eta osoagoa lortzeko.

Ez da ohiko prestakuntza-leku bat. Jabetze Eskolan, Mugimendu Feministak garatutako jakintza eta produkzio kolektibo eta partekatutako metodologia erabiltzen dugu.

Metodologia horrek ahalbidetzen du emakumeek eta sexu-joera edo sexu-genero identitate askotariko kolektiboek bizi duten menpekotasun errealitateari izena jartzea, errealitate hori auzitan jartzea, eta irtenbideak proposatzea.

Esperientziak eta jakintzak partekatzea da kontua, baina, baita ere, gorputzaz disfrutatzea, diskurtsoak, artea, kultura eta errebindikazioak produzitzea.

Azken finean, bizi izatea munduaz dugun pertzepzioa aldatuko digun, eta, aldi berean, mundua aldatzeko tresnak emango dizkigun esperientzia bat.

## ¿Qué es el Empoderamiento?

Llamamos empoderamiento al proceso de concienciación y aprendizaje personal y colectivo, a través del cual las mujeres hemos podido denunciar y luchar contra la situación de discriminación e inferioridad social que impone el sexismo en todas las sociedades del mundo.

## ¿Qué es la Escuela de Empoderamiento?

Este espacio está dirigido a potenciar el empoderamiento y la participación sociopolítica de las mujeres, para conseguir una sociedad más justa, diversa y completa.

No es un lugar de formación típico. En la Escuela de Empoderamiento utilizamos la metodología de producción colectiva y compartida de saberes desarrollada por el Movimiento Feminista.

Esta metodología permite nombrar, cuestionar y proponer alternativas a la realidad de subordinación de las mujeres y de colectivos con orientación sexual o identidad sexo-género diversas.

Se trata de compartir experiencias y conocimientos, pero también de disfrutar con el cuerpo, producir discursos, arte, cultura y reivindicaciones.

En definitiva, se trata de vivir una experiencia que cambie nuestra percepción del mundo, y que, al mismo tiempo, nos dote de herramientas para cambiarlo.

# Emakumeak eta umorea

**Irakaslea: Beatriz Egizabal**
**Egunak: Urriak 3, 10 eta 17 (astearteak)**
**Ordutegia: 18:30-20:30**
**Lekua: Tolosako Kultur Etxea (Trianguloa)**
**Euskaraz**
**5€**

Zergatik, zertaz eta nola egiten dugu barre emakumeok? Umorea ezinbestekoa da ondo bizitzeko. Eta, gehienetan, oso atsegina da barre egitea, kulerotan pixa egin arte barre egitea. Zerk eragiten digu irribarrea, zerk algara?

Geure buruaz barre egitea oso osasuntsua da, baina gutaz beste norbaitek barre egitean zer sentitzen dugu? Dena onartu behar al da?

Umore sortzaile al gara? Zenbat emakume komediante? Zenbat emakume komiko?

Lan talde honetan honako ha aztertuko dugu: emakumeok umore objektu, umore hartzaile eta umore sortzaile.

# Las mujeres y el humor

**Formadora: Beatriz Egizabal**
**Días: 3, 10 y 17 de octubre (martes)**
**Horario: 18:30-20:30**
**Lugar: Casa de Cultura de Tolosa (Trianguloa)**
**En euskera**
**5€**

¿Por qué, de qué y cómo nos reímos las mujeres? El humor es imprescindible para vivir bien. Y la mayoría de las veces es muy agradable reírse hasta mearse de risa. ¿Qué nos hace reír y carcajearnos?

Es muy saludable reírse de nosotras mismas, pero ¿qué sentimos cuando otra persona se ríe de nosotras? ¿Todo es aceptable?

¿Y el humor creativo? ¿Cuántas mujeres son comediantes? ¿Cuántas cómicas?

En este grupo analizaremos todo esto: las mujeres como objeto, receptoras y creadoras de humor.





## Orientazioa mendian

**Irakaslea: Patri Espinar**
**Egunak: Urriak 3, 10, 17 (astearteak), eta azaroak 4 (larunbata),**
**Ordutegia: Astearteak, 17:30-19:30/20:00. Larunbata 9:30-14:00**
**Lekua: Tolosako Kultur Etxea (Trianguloa) eta inguruko mendiak**
**Euskaraz**
**5€**

Emakumeon artean gora egin du mendizaletasunak azken urteotan, baina, sarri, gizonen gidaritzapean egiten ditugu mendi txangoak. Horregatik, tailer honetan, honako gai hauek landu nahi ditugu: ahalduntzea, autonomia, autoestimua, autoezagutza eta geure buruan dugun konfiantza; hori guztia mendian nola orientatu ikasten dugun bitartean.

Autonomia osoz guk geuk erabakitako lekura joateko ibilbideak diseinatzen ikasiko dugu. Mendian edo beste edozein lekutan ibiltzeko orientazioko oinarrizko ezagutza teoriko eta praktikoak landuko ditugu

## Orientación en el monte

**Formadora: Patri Espinar**
**Días: 3, 10, 17 de octubre (martes) y 4 de noviembre (sábado)**
**Horario: Martes, 17:30-19:30/20:00. Sábado, 9:30-14:00**
**Lugar: Casa de Cultura de Tolosa (Trianguloa) y montes de alrededor**
**En euskera**
**5€**

En los últimos años ha crecido la afición al monte entre las mujeres, pero a menudo hacemos excursiones bajo la dirección de hombres. En este taller trabajaremos el empoderamiento, la autonomía, la autoestima, el autoconocimiento y la confianza en nosotras mismas; todo eso mientras aprendemos cómo orientarnos en el monte.

Con total autonomía aprenderemos a diseñar los recorridos que nosotras hayamos decidido. Trabajaremos conocimientos básicos de orientación, teóricos y prácticos, para andar en el monte o en cualquier otro lugar, y, para eso, aprenderemos a utilizar el mapa y la brújula.

# Batukada Feminista

**Irakasleak: Arantxa Vicedo Rubio eta Ainara Sarasketa Alberdi**
**Egunak: Urriak 3, eta 17; azaroak 14 eta 28; abenduak 12 (astearteak)**
**Ordutegia: 18:30-20:30**
**Lekua: San Estebango Auzo Elkartea (Ferialekua)**
**Euskaraz**
**5€**

Ikastaroaren helburuak dira emakumeon arteko harremanak eta elkartasuna sustatze, musikaz gozatu eta gozaraztea, gure irudimena eta sormena garatzea, auto-garapena eta taldekako jabetzea bultzatzea, emakumeok kulturan dugun parte hartzea indartzea, eta emakumeok eta feministok ikusiak eta entzunak izatea esparru publikoan.

# Batukada Feminista

**Formadoras: Arantxa Vicedo Rubio y Ainara Sarasketa Alberdi**
**Días: 3 y 17 de octubre; 14 y 28 de noviembre; 12 de diciembre (martes)**
**Horario: 18:30-20:30**
**Lugar: San Estebango Auzo Elkartea (Ferialekua)**
**En euskera**
**5€**

Los objetivos del taller son promover las relaciones y la solidaridad entre mujeres, disfrutar y hacer disfrutar de la música, desarrollar nuestra imaginación y creatividad, impulsar el autodesarrollo y el empoderamiento colectivo, fortalecer la participación de las mujeres en la cultura, y que a nosotras las mujeres y las feministas se nos vea y se nos oiga en el espacio público.





## Mundukoemakumeen literatura:

### Rive Gauche-ko emakumeak

**Irakaslea: Mertxe Tranche Iparraguirre**
**Egunak: Urriak 4 eta 25, azaroak 15, abenduak 13 (asteazkenak)**
**Ordutegia: 18:00-20:00**
**Lekua: Udal Liburutegia**
**Gaztelaniaz**
**5€**
**Udal Liburutegiarekin elkarlanean**

XIX. mendearen bukaeraren eta II. Mundu Gerraren artean, munduko alde guztietako emakume batzuek topo egin zuten Frantziako hiriburuan, beren talentua garatzeko behar zuten askatasun-giroaren bila. Parisen, denen artean, munduko literatura erabat berritzen lagundu zuten, eta haren garai dirdiratsu eta berritzaileenetako bat eragin zuten. Denetik idatzi zuten: poesia, prosa, baita patriarkatuaren ikuspuntutik inolako zentzurik ez zuten testuak ere; artikuluak eta aldizkariak argitaratu zituzten; liburu-denda eta argitaletxeak sortu; sexualitateaz eta generoaz hausnartu zuten... Baina II. Mundu Gerrak, bere autoritarismoarekin eta suntsipen-arrasto luzearekin, atzerarazi egin zituen, beren etxera, herrira itzularazi, Paris utzarazi zien. Haien legatua gaztelaniaz oso aberatsa ez bada ere, arrastoa jarrai dezakegu eta, hala, emakume haiek ezagutu ditzakegu beren lanen bidez.

## Literatura de mujeres del mundo:

### mujeres de la Rive Gauche

**Formadora: Mertxe Tranche Iparraguirre**
**Días: 4 y 25 de octubre, 15 de noviembre, 13 de diciembre (miércoles)**
**Horario: 18:00-20:00**
**Lugar: Biblioteca municipal**
**En castellano**
**5€**
**En colaboración con la Biblioteca Municipal**

Entre finales del siglo XIX y la II Guerra Mundial un grupo de mujeres, llegadas de todas partes del mundo, se encontraron en la capital francesa en busca del ambiente de libertad que necesitaban para desarrollar su talento. Allí, y entre todas, colaboraron a renovar completamente la literatura mundial en una de sus épocas más brillantes e innovadoras. Escribieron poesía y prosa e, incluso, textos sin ningún sentido desde el punto de vista del patriarcado; publicaron artículos y revistas, crearon librerías y editoriales, reflexionaron sobre la sexualidad y el género… Sólo la llegada de la II Guerra Mundial, con su autoritarismo y su estela de destrucción, les hizo retroceder, volver a sus casas, a sus países, abandonar París. Aunque su legado no es demasiado rico en castellano, podemos rastrearlo y conocerlas a través de sus obras.

# *Autogestio emozionala:*
## *Jabetzea eta mindfulnessa*

**Irakaslea: Pepa Bojó Ballester**
**Egunak: Urriaren 4tik azaroaren 29ra arte (asteazkenak)**
**Ordutegia: 15:00-17:00**
**Lekua: Tolosako Kultur Etxea (Trianguloa)**
**Gaztelaniaz**
**10€**

Emozioen gestioa funtsezko gai bat da berdintasunezko eta tratu oneko guneak sortzeko garaian. Jabetze pertsonalaren alderdi bat ere bada, zeren gaitasuna ematen baitigu autogestio eta osasun emozionalerako.

Badaude geldi utzi eta blokeatzen gaituzten emozio toxikoak, eta geure bizitzeko nahi eta era benetakora bultzatzen eta hurbiltzen gaituzten emozio osasungarriak. Badaude, genero-hezkuntza emozional baten ondorioz, bizitza interpretatzeko eta erreakzionatzeko era batzuk, mugatu eta baldintzatzen gaituztenak.

Garrantzitsua da ikastea geure mundu emozionala deszifratzen eta jakitea geure emozioak modu egokian kudeatzen. Ikastaro honetan, horretarako behar diren tresnak emango dizkigu “arreta osoa” edo mindfulnessa izeneko teknikak.

# *Autogestión emocional:*
## *Empoderamiento y mindfulness*

**Formadora: Pepa Bojó Ballester**
**Días: Del 4 de octubre al 29 de noviembre (miércoles)**
**Horario: 15:00-17:00**
**Lugar: Casa de Cultura de Tolosa (Trianguloa)**
**En castellano**
**10€**

La gestión de las emociones es un tema clave a la hora de crear espacios de igualdad y buentrato, es también un aspecto del empoderamiento personal puesto que nos capacita para la autogestión y la salud emocional.

Hay emociones tóxicas que nos inmovilizan, nos bloquean y emociones saludables que nos impulsan y nos acercan a nuestro verdadero deseo y forma de vivir. Hay formas de reaccionar e interpretar la vida que responden a una educación emocional de género y que nos limitan y condicionan.

Es importante aprender a descifrar nuestro mundo emocional y saber gestionar de forma adecuada nuestras propias emociones. En este curso vamos a conocer las herramientas que nos aporte para ello la atención plena o mindfulness.







# Zaindu geure burua zainduz: emakume zaintzaileentzako tailerra

**Irakaslea: Kontxi López Soria**
**Egunak: Urriaren 19tik azaroaren 16ra arte (ostegunak)**
**Ordutegia: 15:00-17:00**
**Lekua: Tolosako Kultur Etxea (Trianguloa)**
**Gaztelaniaz**
**5€**

Tailerraren helburua da gogoeta sustatzea zaintzaileen rolari, nork bere denbora izateko eskubideari edo berdintasunean eta errespetuan oinarritutako familia-harremanen negoziazioari buruz.

Halaber, tresnak eskaintzen ditu nork bere burua zaintzeko, gorputzaren, emozioen eta norberaren nahien kontzientziatik abiatuta.

Zaintzea ez da betebehar bat eta, edozein kasutan ere, negoziatu beharreko aukera bat izan behar du, norberaren beharrak alde batera utzi gabe.

Hartu arnasalditxoa eta parte hartu.

# Cuidar cuidándonos: taller para mujeres cuidadoras

**Formadora: Kontxi López Soria**
**Días: Del 19 de octubre al 16 de noviembre (jueves)**
**Horario: 15:00-17:00**
**Lugar: Casa de Cultura de Tolosa (Triangu-loa)**
**En castellano**
**5€**

El taller busca promover la reflexión sobre el rol de cuidadora, el derecho al tiempo propio y la negociación de las relaciones familiares desde la igualdad y el respeto.

Asimismo, ofrece herramientas para el auto-cuidado partiendo de la conciencia del cuerpo, de las emociones y de los de-seos de cada una.

Cuidar no es una obligación, y en todo caso ha de ser una opción a negociar sin perder de vista las propias necesidades.

Date un respiro y participa.

# Autodefentsa Feminista

**Irakaslea: Maitena Monroy**
**Egunak eta ordutegia: Urriak 20 (ostirala), 16:00-20:00 eta urriak 21 (larunbata), 10:00-14:00**
**Lekua: Tolosako Kultur Etxea (Trianguloa)**
**Gaztelaniaz**
**5€**

Ikastaro honetan ikasiko dugu erasoak identifikatzen, jatorria aztertzen, indarkeria alderdi guztietatik eraikitzen eta bere ondorioak zein diren. Indarkeriaren inguruko mitoak eta errealitateak ere analizatuko ditugu, eta bere ondorio indibidualak nahiz kolektiboak baloratu.

Espazio bat sortuko dugu gure eskubideen, gure erantzukizunaren eta gure gaitasunen inguruan kontzientziatzeko, eta bide horretatik emakumeei gizonekiko baldintza berdinetan bizitzea eragozten dien indarkeriarekin amaitzeko.

Halaber, mekanismoak eta ekintzak bilatuko ditugu eguneroko bizitzako eraso egoerei erantzuteko.

# Autodefensa Feminista

**Formadora: Maitena Monroy**
**Días y horario: 20 de octubre (viernes), 16:00-20:00 y 21 de octubre (sábado), 10:00-14:00**
**Lugar: Casa de Cultura de Tolosa (Trianguloa)**
**En castellano**
**5€**

En este taller aprenderemos a identificar las agresiones, analizaremos el origen y construcción de la violencia en todos sus aspectos y sus consecuencias. También examinaremos los mitos y realidades en torno a la violencia y sus consecuencias individuales y colectivas.

Generaremos un espacio que posibilite concienciarnos de nuestros derechos, de nuestra responsabilidad y de nuestras capacidades para acabar con este tipo de violencia que imposibilita la vida de las mujeres en igualdad de condiciones con respecto a los hombres.

Asimismo, buscaremos mecanismos y actuaciones para responder y resolver las situaciones de agresión en la vida cotidiana.





## Paseoak Tolosan barrena: *Hirigintza eta generoa*

**Irakaslea: Mertxe Tranche Iparragirre**
**Egunak: Urriak 23 eta 30, azaroak 13 eta 20 (astelehenak)**
**Ordua: 18:00-20:00**
**Lekua: Tolosako Kultur Etxea (Trianguloa)**
**Gaztelaniaz**
**5€**

Kaleek, etxeek, plazek... istorioak kontatzen dituzte, baita Tolosakoek ere. Itzal handiko gizonen ekintza heroikoak eta itzalpeko emakume saiatuen istorioak. Kaleek, etxeek... adierazten dute, era berean, nola bizi garen eta nola aurkitzen garen, hitz egiten digute gauza erraz eta zailei buruz, argitasunari, iluntasunari eta beldurrari buruz.

Gure paseoak, beraz, istorio horiek irakurtzeko modu bat izango dira, hala, gero, aldatu ahal izateko.

## Paseos por Tolosa: *Urbanismo y género*

**Formadora: Mertxe Tranche Iparragirre**
**Días: 23 y 30 de octubre, 13 y 20 de noviembre (lunes)**
**Hora: 18:00-20:00**
**Lugar: Casa de Cultura de Tolosa (Trianguloa)**
**En castellano**
**5€**

Las calles, las casas, las plazas, también las de Tolosa, cuentan historias. Historias de actos heroicos y grandes hombres e historias de mujeres esforzadas y escondidas. Hablan, además, del modo en que vivimos y nos encontramos, de cosas fáciles y cosas difíciles, de luz, oscuridad y miedo.

Nuestros paseos serán una manera de leer todas esas historias y, luego, cambiarlas.

## Hitzaldia:
## *Berdintasuna, gizonen ardura ere bada*

**Hizlaria: Mikel Otxotorena Fernandez**
**Eguna: Urriak 24 (asteartea)**
**Ordutegia: 18:30-20:30**
**Lekua: Tolosako Kultur Etxea (Trianguloa)**
**Euskaraz**

Zer da gizon bat? Zer da emakume bat? Berez, oso galdera errazak dirudite, baina erantzuten goazen heinean, asko zailtzen zaigu erantzuna. Gure gizartean gizon izatea eta emakume izatea konplexutasun handiko kontzeptuak dira.

Hortik abiatuta, zer zutabek eusten diote maskulinotasun sexistari? Eta nolakoa izan behar du gizonen parte-hartzea berdintasunaren eraikuntzan?

## Charla:
## *La igualdad también es reponsabilidad de los hombres*

**Ponente: Mikel Otxotorena Fernandez**
**Día: 24 Octubre (martes)**
**Horario: 18:30-20:30**
**Lugar: Casa de Cultura de Tolosa (Trianguloa)**
**En euskera**

¿Qué es un hombre o una mujer? En sí parece una pregunta fácil, pero en la medida que la vamos contestando, se nos dificulta mucho la respuesta. Ser hombre y mujer en nuestra sociedad son conceptos cargados de mucha complejidad.

Tomando esto como punto de partida, ¿cuáles son los pilares que sostienen la masculinidad sexista? ¿Y cómo tiene que ser la participación de los hombres en la construcción de la igualdad?





## Liburuaren aurkezpena:
### Festak, genero-harremanak eta feminismoa.

**Hizlariak: Miren Guilló Arakistain eta Maria Ajuria Hernández**
**Eguna: Azaroak 9 (osteguna)**
**Ordutegia: 18:30-20:30**
**Lekua: Tolosako Kultur Etxea (Trianguloa)**
**Euskaraz**

Liburu honetan, festak genero-ikuspegitik aztertzeko zenbait gako proposatzen dira, esaterako, antropologia feministak, eta oro har, feminismoak proposatzen dituen zenbait ainguraketaren bitartez. Hala, testuinguru desberdinetan sortzen diren zenbait jai-erritu, egitasmo eta genero-harreman analizatzen dira. Horrez gain, festa-esparruan sortu diren hainbat ekimen, aldarrikapen, prozesu parte-hartzaile eta gogoeta ere bildu dira. Agentzia feminista erdigunean, festak eraldaketa kolektiborako esparru bihurtzen baitira. Funtsean, abiagune, testuinguru eta narrazio desberdinen artean, festa-politika feministetan eta plazeraren kudeaketa kolektiboetan arakatzeko mapa sortu nahi izan da, bestelako koordenatuen bilaketan.

Aurkezpenean, liburuaren egiletako birekin esperientziak, gogoetak eta erronkak konpartitzeko aukera izango dugu.

## Presentación del libro:
### Fiestas, relaciones de género y feminismo.

**Ponentes: Miren Guilló Arakistain y Maria Ajuria Hernández**
**Día: 9 de noviembre (jueves)**
**Horario: 18:30-20:30**
**Lugar: Casa de Cultura de Tolosa (Trianguloa)**
**En euskera**

En este libro se proponen diversas claves para el análisis de las fiestas desde la perspectiva de género, por ejemplo, mediante distintos anclajes propuestos por la antropología feminista y, en general, el feminismo. Así, se analizan variados ritos festivos, programas y relaciones de género surgidos en contextos diferentes. Así mismo, se han recogido múltiples reflexiones, procesos participativos, reivindicaciones e iniciativas creadas en el ámbito festivo; las fiestas como ámbito para la transformación colectiva, con la agencia feminista en el centro. En el fondo, entre puntos de partida, contextos y narraciones diferentes, se ha querido formar un mapa para indagar en las políticas festivas feministas y en la gestión colectiva del placer, en la búsqueda de unas coordenadas de otro tipo.

En la presentación tendremos la oportunidad de compartir experiencias, reflexiones y retos con dos de las autoras del libro.

# Tailerra: Feminismoa eta politikaren eraldaketak

**Irakaslea: Mari Luz Esteban Galarza**
**Eguna: Abenduak 2 (larunbata)**
**Ordutegia: 10:00-13:00**
**Lekua: Kultur Etxea (Trianguloa)**
**Euskaraz**
**5€**

Egilearekin batera jorratuko ditugu Mari Luz Estebanek liburuan aurkezten dituen hainbat galdera: Politika berrasmatzen ari gara? Nolakoa da egungo mugimendu feminista? Zein izan da azken hamarkadetan ezagutza sortzeko eta zirkularazteko erabili den metodologia nagusia feminismoan? Nola iristen da egun gizartera edo beste gune batzuetara, gune feministetan sortutako ezagutza? Zeintzuk dira politika (feminista) baten arrakasta bermatzen duten ahalmenak edo trebetasunak? Noraino dira bateragarriak erreforma eta haustura? Zeintzuk dira ahalduntze terminoaren gaurko erabilerak? Nola egituratzen da lidergoa? Nola babestu eta kritikatu aldi berean boterean dauden feministak?

Tailer honetako hausnarketa eta eztabaida aberasgarriak izateko, beharrezkoa da aurretik liburua irakurrita edukitzea. Har ezazu tartetxo bat eta disfrutatu!

# Taller: Feminismo y transformaciones de la política

**Formadora: Mari Luz Esteban Galarza**
**Día: 2 de diciembre (sábado)**
**Horario: 10:00-13:00**
**Lugar: Casa de Cultura de Tolosa (Trianguloa)**
**En Euskara**
**5€**

Trataremos junto con la autora Mari Luz Esteban diversas cuestiones que nos presenta en su libro: ¿Estamos reinventando la política? ¿Cómo es el actual movimiento feminista? ¿Cuál ha sido la metodología principal utilizada por el feminismo en estas últimas décadas para crear el conocimiento y hacerlo circular? ¿Cómo llega actualmente a la sociedad y a otros espacios el conocimiento creado en los círculos feministas? ¿Cuáles son las capacidades y las destrezas que garantizan el éxito de una política feminista? ¿Hasta qué punto son compatibles la reforma y la ruptura? ¿Cuáles son los usos actuales del término empoderamiento? ¿Cómo se estructura el liderazgo? ¿Cómo apoyar y criticar al mismo tiempo a las feministas que están en el poder?

Es necesario leer previamente el libro para enriquecer las reflexiones y debates de este taller. ¡Tómate tu tiempo y disfruta de la lectura!











# Guretzako
# Jatorri kultural ezberdinetako emakumeentzako gunea

Parte hartu nahi baduzu jatorri kultural desberdinetako emakumeentzako aisialdi, laguntza eta elkartasun espazio batean, jo dezakezu jarduera hauetara.

**KULTUR ARTEKO TOPAKETAK-BAZKARIAK**

**Dinamizatzailea: Txelo Berra Mur**
**Ordua: 13:00**
**Lekua: San Esteban, 20**

Irailak 24. Honduras
Urriak 22. Maroko
Azaroak 19. Bizilagunak
Abenduak 17. Nigeria

Antolatzailea: Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun Saila, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailaren laguntzarekin.

# Guretzako
# (Para nosotras)
# Espacio para mujeres de orígenes culturales diferentes

Si estás interesada en participar en un espacio de ocio, apoyo y solidaridad entre mujeres de orígenes culturales diferentes, puedes acudir a estas actividades.

**ENCUENTROS-COMIDAS INTERCULTURALES**

**Dinamizadora: Txelo Berra Mur**
**Hora: 13:00**
**Lugar: San Esteban, 20**

24 Septiembre. Honduras
22 Octubre. Marruecos
19 Noviembre. Bizilagunak
17 Diciembre. Nigeria

Organiza: Departamento de Migración y Diversidad de Tolosaldea Garatzen, con el apoyo del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa.

## Liburuaren aurkezpena:
### Hitza hartu. Emakumeak, diskurtsoak eta isiltasunak.

**Hizlaria: Dolores Juliano Corregido**
**Aurkezlea eta moderatzailea: June Fernandez (Pikara Magazine)**
**Eguna: Azaroak 18 (larunbata)**
**Ordutegia: 18:00-20:00**
**Lekua: Tolosako Kultur Etxea (Trianguloa)**
**Gaztelaniaz**

Liburu hau urtetako ikerketa baten emaitza da eta azaltzen du nola eragiten dien aurreiritziek gizarteko sektorerik babesgabetuenei, migratzaile, emakume sexu-langile, emakume preso eta gutxiengo etnikoei. Liburuak isildutako edo infrabaloratutako lanei buruzko hausnarketa bat jasotzen du, besteak beste, zaintza-lanei buruzkoa, baina beste gai batzuei buruz ere badihardu, hala nola arriskutsutzat jotzen diren espazioei buruz eta migrazioei gaur egun ematen zaien esanahi berriari buruz. Lantzen ditu, era berean, gure kulturak dituen tabu nagusiak, adibidez, zahartzaroa eta heriotza.

Azpimarratzen du ezen nahiz eta diskurtso nagusiek indarra eta egokitzeko gaitasuna duten, etengabe dagoela haien aurkako erantzun bat, haiek higatzen dituena, espresatzeko eskubidea onartzen eta balioesten ez zaion jendeak emana, jende hori delarik gizarte-aldaketa benetakoaren eta desiragarriaren protagonista. Gaiari ikuspuntu antropologiko feminista batetik heldu dio.

## Presentación del libro:
### tomar la palabra. Mujeres, discursos y silencios.

**Ponente: Dolores Juliano Corregido**
**Presentadora y moderadora: June Fernandez (Pikara Magazine)**
**Día: 18 de noviembre (sábado)**
**Horario: 18:00-20:00**
**Lugar: Casa de Cultura de Tolosa (Trianguloa)**
**En castellano**

Este libro es el resultado de años de investigación sobre cómo afectan los prejuicios a los sectores más desprotegidos de la sociedad, inmigrantes, trabajadoras sexuales, presas y minorías étnicas. El libro incorpora una reflexión sobre trabajos silenciados o infravalorados, como las labores de cuidado, pero también se adentra en temas tan diversos como la existencia de espacios considerados peligrosos y la resignificación actual de las migraciones. Se interna además en los principales tabúes de nuestra cultura, como son la vejez y la muerte.

La autora subraya que en esa construcción social de la desvaloración y el rechazo, tienen tanto peso los discursos como los silencios y enfatiza las respuestas cuestionadoras y su lento camino hacia el reconocimiento. Aborda el tema desde una perspectiva feminista.



## Argibideak eta matrikula:

Matrikula Kultur Etxean ordainduko da, izena emateko orduan.

**Informazioa eskatzeko,** hots egin beheko telefono zenbakira edo mezua bidali beheko e-mailera:

943670383
berdintasuna@tolosa.eus

**Izena emateko eta matrikula egiteko epea:**
Jarduera hasi baino bi egun lehenago bukatuko da izena emateko eta matrikula egiteko epea.

**Haurtzaindegi zerbitzua:**
Dohaineko haurtzaindegi-zerbitzua egongo da, aurretik izena eman eta eskatuta.

**Jarraiguzu:**

Facebook: Tolosa Berdintasuna
Twitter: @BerdinBerdin

## Información y matrícula:

La matrícula se abonará en la Kultur Etxea, en el momento de la inscripción.

**Para solicitar información** llamar al teléfono o escribir a la siguiente dirección de email:

943670383
berdintasuna@tolosa.eus

**Periodo de inscripción y matrícula:**
La inscripción y matrícula podrá hacerse hasta dos días antes de que comience la actividad.

**Servicio de guardería:**
Se podrá contar con un servicio de guardería previa inscripción y petición.

**Síguenos:**

Facebook: Tolosa Berdintasuna
Twitter: @BerdinBerdin

